



Usurbilgo Udala



2015EKO EKAINAREN 10EAN EGINDAKO EZOHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.
Josu Portu Alzaga J.
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.
Jose María Rivadeneyra Sicilia J.
Enara Arbizu Irurtia A.
Iñaki Ugarte Aguirre J.
Eustakio Arrojeria Eguzkiza J.
Jose Ramon Furundarena Salsamendi J.
Luismari Ormaetxea Santsiñena J.
Miren Josune Urquia Carrera A.
Josune Urkola Larrarte A.
Ricardo Crespo Rubio J.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel A.

Arratsaldeko 19:02etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2015eko ekainaren 10ean, arratsaldeko 19:02etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

1.- 2015EKO MAIATZAREN 21EKO EZOHIKO BILKURAKO AKTAREN ONESPE- NA.

Batzarkideek, 2015eko maiatzaren 21eko ezohiko bilkurako akta gehiengoz onartu dute, bertaratu ez ziren Jose Ramon Furundarena eta Ricardo Cresporen abstentzioarekin eta gainontzekoen aldeko bozkarekin.

Jarraian, alkateak adierazi du legegintzaldi honetako azken plenoa izango dela gaurkoa eta azken hitz batzuk esan nahiko lituzkeela.



Usurbilgo Udala



Lau urte hauei bukaera ematen dion pleno berezia dela adierazi du. Lau urtek askotarako ematen dutela, egindakoa hor geratzen dela eta balantze zehatza egiteko asmorik ez duela azaldu du.

Bizpahiru gai aipatu nahiko lituzkeela dio, laburpen gisa esatea merezi dutenak eta, batez ere, hemen bizi izan dutenari eragiten diotenak. Gaineratu du onak bakarrik aipatuko dituela, nahiz eta pasadizo txarrak egon diren ere. Esaten den bezala denbora dela epailerik onena adierazi du, bakoitza bere lekuan jartzen duelako. Edo, beste batzuek esaten duten bezala, denbora dela autorerik onena, beti bukaera perfektua aurkitzen duelako. Beraz, ez dakiela dio hau bukaera perfektua den baina berak horrela izatea nahiko lukeela. Azken finean, bere buruarekin eta egindako lanarekin pozik dagoela aditzera eman du.

Bestalde, legegintzaldi lasaia izan dutela eta hori poztekoa dela esan du, horretan udala osatzen duten 13 zinegotziek parte dutela gaineratu du. Pleno areto honetan behintzat harremanak eta egindako lana errespetuz eraman dela eta eskertzekoa dela gaineratu du tentsio gehiturik gabeko legegintzaldia aurrera eraman ahal izatea.

Guztiak eskertu ditu areto honetan erakutsitako jarreragatik. Ordezkarri politikoei herriari eta herritarrei gauzak patxadaz eta lasaitasunez egitea zor diela uste du.

Eskertza berezia eskaini die udal gobernu taldeko kideei. Gogoratu du duela lau urte bi taldetan hasi zirela, batzuk Bildu bezala eta Aralar oposizio taldean, eta bat eginda bukatu dutela. Hori ere beste elementu positibo bat dela esan du.

Ziur dago herriaren onerako aritu direla. Herrigintzak funtsean duen motibazioak bultzatu dituzte eta lau urte hauetan Usurbil hobetzeko saiakerak emaitzak eman dituela adierazi du. Gainera egoera berezi batean izan dela esan du, izan ere krisi ekonomikoaren olatuak harrapatu baititu, nolabait surfeatzen ibili behar izan dutela gaineratu du baina hondartzaraino iritsi direla eta nahiko txukun egin dutela uste du.

Udaletxe honetan gehiengo nagusia izan dutela eta egia dela dio horrek agintean dagoenari gauzak erraztu egiten dizkiola eta oposizio taldeei tarte gutxiago ematen diela, baina beraien aldetik gardentasuna bermatze aldera eta oposizioari gauzak errazte aldera informazioa eskura jarri dutela esan du, legeak behartzen duena baino maila handiagoan gainera.

Gobernu hau orekaz eta errespetuz lana egiten saiatu dela esan du eta bera pertsonalki alkate bezala baita ere. Noizbait kale egin badu edo norbait mindu badu, zinegotzi, langile edo herritar, barkamenak eskatu ditu.

Alkate bezala zorte handikoa sentitzen dela esan du Usurbilgo herriari bere ekarpena egiteko aukera izan duelako, alkate bezala herrian babestua eta errespetatua sentitu delako eta, batez ere, taldeko kideekin lanean aritzeko aukera izan duelako. Taldekiei zuzenduz adierazi die lan asko egin dutela, baina merezi izan duela eta plazer bat izan dela beraien lan egitea eta beraien ezagutzea.



Usurbilgo Udala



Harro dagoela egindako lanaz eta lasai eta pozik itzultzen dela duela lau urte utzi zuen lanera, baina era berean bizipen asko daudenez tartean pena pixka bat ere badarama-la adierazi du.

Kazetaritza ikasketak dituela eta horretan lan egin izan duela beti adierazi du, baina aitortu du bere bizitzako ikastaldi handia hau ere izan dela, politikoki, profesionalki eta pertsonalki.

Bestalde, udaletxe honetako teknikari, langile eta departamendu desberdinetako jendeari bere esker ona adierazi die lau urte hauetan emandako laguntza eta elkarlanarengatik.

Daudenen artean lau zinegotzik jarraitzen dutela adierazi du, beraz, udaletxe berritua izango dela. Bera bezala udaletxea uzten dutenei zorte onena eman die eta jarraitzen dutenei esker bikoitza eskaini die, herriaren alde aritu ondoren konpromisoa berrestea benetan eskertzekoa baita.

Lau urte hauetan egindako lanak jarraipena izango duela esan du eta amestu dituzten egitasmoek eta gauzatu ez direnek gauzatzeko aukera izango dutela gaineratu du.

Berriz ere eskerrak emanez amaitu du.

Alaitz Aizpuruak hitza hartu du eta Mertxe berari eskerrak eman dizkio. Talde lanean aritu direla esan du eta borondate on guzti horiengatik eta ahalegin guzti horiengatik eskerrak eman dizkio. Denek asko ikasi dutela eta Mertxek pertsona bezala ere asko erakutsi duela adierazi du.

Alkateak amaitzeko Parekidetasun sailetik bideratu den “Lurra, lana, izana: Usurbilgo emakume baserritarren ahotsak” dokumentala eta liburua eman dizkie opari gainerako zinegotziei.

Alkate andreak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:15etan eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.